



Alegazioak Solaria enpresaren goi-tentsioko linearen kontra

Joan den martxoan, Solaria enpresak hiru azpiegitura fotovoltaiko eta energia husteko goi-tentsioko linea eraikitzeko Aurretiazko Administrazio Baimenaren eta Ingurumen Inpaktuaren Adierazpenaren eskaerak aurkeztu zizkion Industria Administrazioaren Arabako Lurralde Ordezkaritari. Zuiatik Zierbenara doan ebakuazio-linea horrek Aiara zeharkatzen du Luiaondo, Murga, Arespalditza eta Zuhatzatik, eta Okondorantz jarraitzen du, zehazki, 400 kV-ko gaitasunarekin eta 100 kilometroko luzerarekin.

Berez, Aiara zeharkatzen duen linea orain dagoenaren paraleloa izango litzateke. Proiektuan ez dira aipatzen goi-tentsioko bi lineen metatze-ondorioak eta ingurunean duten eragina, flora eta fauna, paisaia, ondare historiko eta

kulturalean eta proiektu horien inguruan bizi diren pertsonen osasunean.

Azpiegitura horiek azpiestazio hurbilenarekin konektatzen dira normalean, baina kasu honetan ez da horrelakorik gertatzen. Ondorioz, ekoiztako energiaren zati bat ibilbidean zehar galduko da, eta, hori dela medio, nekez justifika daiteke linea hori ezartzea. Gauzak horrela, Udalak bilerak egin ditu proiektua azaltzeko Administrazio Batzarrekin eta partikularrekin eta alegazioak prestatu ditu, udaletxean eskuragarri daudenak. Horiek aurkezteko epea ekainaren 13an amaitzen da, eta lau bide egon arren (sinadura elektronikoa, edota postaz Eusko Jaurlaritzara), errazena de Aiarako Udaleko erregistroa baliatzea zuzenean horretarako.

En marzo la empresa Solaria presentó las solicitudes para la construcción de una línea de alta tensión que atravesaría Ayala desde Luiaondo, Murga, Respaldiza y Zuhatza para continuar hacia Okondo. Dado que ya existe una infraestructura de esas características en un recorrido paralelo, el Ayuntamiento ha redactado alegaciones al proyecto, también para las juntas y la ciudadanía. Las personas particulares tienen hasta el 13 de junio para cumplimentarlas y tramitarlas en las oficinas municipales.

Todas las noticias de Ayala a un click en WhatsApp, Instagram, Facebook y X (Twitter)

El Ayuntamiento de Ayala dispone ya de distintos perfiles en las redes sociales desde los que difundir las informaciones más importantes del municipio. Las personas usuarias de Instagram pueden

consultar @aiaraudala, en X (Twitter) el perfil es el mismo y en Facebook Aiarako Udala. Además, no conviene olvidar el servicio de mensajería instantánea WhatsApp del teléfono 615 788 146.

Aiarako Udala sare sozialetan dago herriko informazio zabaltzeko. Instagram eta X plataformetan @aiaraudala da eta Facebooken Aiarako Udala.

Tximeletak Zentroa; eraso matxisten biktimak artatzeko zerbitzua



Arabako Foru Aldundiak Tximeletak Zentroa jarri du martxan, sexu indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta espezifiko eta integrala emateko. Araban bizi diren emakumeentzako zerbitzua urteko 365 egunetan eta 24 orduetan dago irekita.

Berez, bitarteko hori Gasteizen kokatuta dago eta publikoa eta doakoa da. Ez da beharrezkoa salaketa jarri izana arreta jasotzeko. Zerbitzuak artatzen duen sexu indarkeriaren barnean dira sexu erasoa, sexu jazarpena, sexu konnotazioa duen jazarpena, eremu digitalean egindako sexu indarkeria eta sexu indarkeriarekin loturiko emakumeen hilketa.

Tximeletak Zentroaren harremanetarako telefono zenbakia 650 80 10 80 da eta eguneko 24 orduetan dago indarrean. Egoeraren arabera, ohiko edo premiazko hitzordua eskaintzen dute edo, behar izanez gero, profesionala biktima dagoen tokira joan daiteke. Argibide gehiago nahi izanez gero, Aiarako Kuadrillako Berdintasun teknikariarekin hitz egiteko aukera dago cayala.miren@ayto.araba.eus helbide elektronikoan edota 686 587 889 telefonoan (Miren).

La Diputación Foral de Álava ha puesto en marcha el centro Tximeletak, que tiene como objetivo principal ofrecer una atención integral y específica a todas las mujeres víctimas de cualquier tipo de violencia sexual. Este recurso para hacer frente a las agresiones está ubicado en Gasteiz y da servicio los 365 días del año durante 24 horas al día. Además, no es preciso haber interpuesto ninguna denuncia para ser atendida. Los casos en los que brinda apoyo van desde la agresión sexual, al acoso, violencia en el ámbito digital o incluso violencia de género relacionada con el homicidio de mujeres. Es un servicio completamente gratuito y para ponerse en contacto con el centro basta con llamar al número de teléfono 650 80 10 80. También se puede solicitar más información a la técnica de Igualdad de la Cuadrilla de Ayala en el correo electrónico cayala.miren@ayto.araba.eus o el teléfono 686 587 889. (Miren)

Aniztasunaren aldeko ekintzak



Urtero bezala, aurten ere sexu eta genero identitateen aniztasunaren aldeko kanpaina antolatu dute Aiaran, eta horretarako elkarlanean aritu dira udalerriko eragile ezberdinak. Hain zuzen, Udaleko Berdintasun Arloak Aiarateka elkartearekin eta Luiaondoko Administrazio Batzarrarekin batera prestatu ditu ekintzak.

Hala, ekainaren 18an, asteartean, eta Luiaondoko Aste Kulturalaren barruan, aniztasunaren eta berdintasunaren aldeko murala margotuko dute Otuetza Gizarte Etxearen alboan 17:00etan. Gogoratu beharra dago duela urte batzuk inguruko eskailera ere margotu zituztela aniztasuna aldarrikatzeko. Egun berean 19:00etan Kaitin Allenderen bakarrizketa egongo da.

Ayala se sumará, un año más, a la reivindicación de la diversidad de género y sexual. Será el 18 de junio dentro de la programación de la Semana Cultural de Luiaondo. A las 17:00 pintarán un mural junto al Centro Social Otuetza y a las 19:00 llegará el turno del monólogo de Katitin Allende.

Taller de horticultura en la Residencia Alday para fomentar el conocimiento entre diferentes generaciones de Ayala

La asociación Aiarateka, la Fundación Alday y el Ayuntamiento de Ayala van a ofrecer un taller de horticultura el 11 de junio a las 16:30 en la residencia para adquirir conocimientos básicos a la hora de trabajar la huerta. Además

de realizar la plantación de especies de verano, la actividad tiene como propósito impulsar el conocimiento entre diferentes generaciones del municipio y las personas usuarias de la residencia. Inscripción en el 688 78 36 67.

Alday Nagusien Egoitzako eta herriko belaunaldi ezberdinen arteko elkar ezagutza sustatzeko baratzegaintza tailerra eskainiko dute ekainaren 11n 16:30ean. Izena ematea 688 78 36 67 telefonoan.

Bilera ekainaren 12an konposttze guneak biderkatzeko Aiaran



Etxe Berdeak programaren barruan, ekainaren 12an, asteazkenean, arratsaldeko 18:00etan konpostatzeari buruzko tailerra egingo dute Aiarako udaletxean, herritarrek praktika horren garrantziaz jabetu daitezten. Hain zuzen, konpostatzea ezinbestekoa da zabortegietako hondakinen kopurua murrizteko eta lurzorua emankortasunahobetzeko, beste arrazoi askoren artean. Hori dela eta, ekainaren 12an Aiarako udaletxera gerturatzeko gonbidapena zabaldu du Udalak, hondakinen kudeaketa jasangarriari buruzko informazioa jasotzeko, eta zehazki, konpostatze jarduerari buruz informatzeko. Ez da beharrezkoa alde zuzenetik izena ematea eta sarrera libre izango da gelaren edukiera bete arte. Bertaratzen direnen artean, hiru etxeko konpostagailu zozketatuko dituzte.

Horrez gain, Aiarako Kuadrillako Ingurumen sailak eskualdean auzo-konpostatze gune berriak zabaltzeko asmoa dauka. Egun, lau daude, eta horietatik bat Aiaran kokatuta dago, zehazki Izorian. Helburua da hurrengo urteetan lau konpost-gunetik hamabi izatera heltzea eta horretarako dirulaguntza jasoko du Kuadrillak.

Dentro del programa “Hogares Verdes”, el miércoles 12 de junio a las 18:00 de la tarde se celebrará en el Ayuntamiento de Ayala un taller sobre compostaje para concienciar a la ciudadanía sobre la importancia de fomentar esta práctica. Precisamente, el compostaje es imprescindible para reducir la cantidad de residuos en vertederos y mejorar la fertilidad del suelo, entre otras muchas razones. Para asistir al taller no es necesario inscribirse con antelación, ya que la entrada será libre hasta completar el aforo de la sala. Entre las personas asistentes se sortearán tres compostadoras domésticas cuyo montaje se explicará en la misma sesión. Además, el departamento de Medio Ambiente de la Cuadrilla de Ayala va a impulsar la instalación de nuevas zonas de compostaje. En estos momentos hay cuatro -una de ellas en Izoria- y la intención es alcanzar la cifra de doce, para lo que el Gobierno Vasco va a apoyar la iniciativa económicamente.

Etxaurrengo ikasleak Udalean



Maiatzaren 28an, Eskolako Agenda 2030 programaren barne, Udal Foroa egin zuten Aiarako Udalean, non Etxaurren Ikastolako maila desberdinetako laurogei bat ikasleek parte hartu zuten, alkatearekin eta alkateordearekin batera. Horren helburu nagusia da ikasleek, Eskolako Agenda 2030 jarraituz, ikasturtean jorratu duten gaia eta landu dituzten ekintzak udal ordezkariarekin partekatzea. Izan ere, azken bi ikasturteetan energia landu dute eta gai hori jarraiki hainbat ekintza egikaritu dituzte kontsumoa aurrezteko asmoz. Udal Foroan egitasmo horien berri eman zuten eta gainera, herri-mailan kontuan hartzeko proposamen eta konpromisoak iradoki zituzten. Horien artean honako hauek daude: ur-txorrotetan topeak jartzea, landaketak egiten jarraitzea berotegi-efektuko gasen isuriak konpentsatzeko, hamaiketakoak tuperretan eramatea plastikozko poltsak ekiditeko, orri birziklatuak erabiltzea, aparatu elektronikoak gutxiago erabiltzea energia aurrezteko, etab. Udalak hartu beharreko konpromisoei dagokienez, ikasleek, batez ere, herriko mugikortasuna hobetzea, zaborrontzi gehiago jartzea eta LED argiteria erabiltzea eskatu zuten.

Udako Jolas Txokoak, colonias de verano durante julio para menores nacidos y nacidas entre el 2012 y el 2021

El Ayuntamiento de Ayala ofrecerá Udako Jolas Txokoak del 1 al 26 de julio en Respaldiza y Luiaondo a las familias con menores nacidos y nacidas entre el 2012 y el 2021. Los horarios serán de 09:00 a 13:30 y el último día para

realizar la inscripción será el 14 de junio -se respetará el orden en que se haga-. Las plazas son limitadas y tendrán prioridad las personas empadronadas en el municipio. La hoja a rellenar se encuentra en www.aiarakoudala.eus.

Aiarako Udalak Udako Jolas Txokoak udalekuak eskainiko ditu uztailan eta izena emateko azken eguna ekainaren 14a izango da. Inskripzio orria topatu daiteke www.aiarakoudala.eus webgunean.

Sorlasean, teatro infantil



El Ayuntamiento de Ayala va a ofertar a partir del 3 de octubre la actividad de teatro infantil Sorlasean. La particularidad de esta iniciativa es que va a ser en euskera y está destinada a jóvenes de entre seis y doce años. Las clases de la escuela de artes escénicas se llevarán a cabo los jueves a las 18:00 a lo largo del curso lectivo. El precio de la actividad va a ser de 36 euros y el plazo de inscripción estará vigente del 17 al 28 de junio. Las plazas se asignarán por orden de inscripción y las personas empadronadas en Ayala tendrán prioridad.

Aiarako Udalak Sorlasean antzerki eskola eskainiko du. Egitasmoaren berezitasuna da, zenbait balio eta trebezia sustatzeaz gain, euskarazko jarduera izango dela, hamabi eta sei urte bitarteko umeei bideratuta, hain zuzen. Ikasturtea urrian abiatuko dute eta maiatzean amaituko da. Izena ematea ekainaren 17tik 28ra bitartean egin beharko dute interesdunek eta inskripzioen ordena errespetatuko dute. Aiaran bertan erroldatutakoek lehentasuna izango dute. Saiok ostegunero izango dira, 18:00etan, eta ikastaro osoaren prezioa 36 eurokoa izango da.

Agenda

11

TAILERRA

**Baratzezaintza
belaunaldien artean**

Arespalditza, Alday Nagusien

Egoitza, 16:30

12

TALLER

**Cómo practicar el
compostaje**

Respaldiza, Ayuntamiento, 18:00

18

ANIZTASUNAREN ALDEKO EKINTZAK

**Mural baten margoketa eta
Kaitin Allenderen
bakarrizketa**

Luiaondo, Otueta Gizarte Etxea,

17:00 eta 19:00

23

MAGIA IKUSKIZUNA

**Familiarentzat, Asier Kidam
magoarekin**

Murga, 19:00

25

GAZTE UDA 2024

**Escape Room en la Arboleda.
Inscripción en el
Ayuntamiento antes del 18
de junio. 6 euros.**

Ayala

28

CONCIERTO

The Sorry String Band

Respaldiza, 19:30

Encuentro de mayores

El 25 de junio en la localidad de Artziniega tendrá lugar el XXIII Encuentro de Mayores de la Cuadrilla de Ayala. Contará con espectáculo de magia y de humor, comida, baile y una visita al Museo Etnográfico. El precio será de 25 euros y el último día para inscribirse será el 10 de junio. La inscripción se debe realizar mediante la Asociación Santiago Apóstol de Llanteno (645 135 814) o la Cuadrilla de Ayala (945 39 91 22 o 677 566 289). Además, los horarios de recogida de los autobuses se harán saber a través de las asociaciones o de la propia Cuadrilla.

Piscinas municipales

Las piscinas municipales de Ayala inaugurarán la temporada estival el 14 de junio y la concluirán el 8 de septiembre. Durante julio y agosto los horarios de apertura serán de 11:00 a 21:00 y en junio y septiembre, en cambio, de 12:00 a 21:00 entre semana y de 10:00 a 21:00 los fines de semana. Las personas interesadas en hacerse con el abono de la temporada deben acudir a la página web municipal www.aiarakoudala.eus, descargar la correspondiente solicitud, rellenarla y entregarla en las oficinas municipales o bien mediante la sede electrónica.



WhatsApp municipal

Si quieres informarte de la actualidad de Aiara, súmate a las más de 290 personas que ya están apuntadas en el número de WhatsApp 615 788 146.